

KIROL-JARDUERA FISIKOEN PROGRAMA UPV/EHUko Arabako Campusa 2022-23ko 1. lauhilekoa

1.- KIROL-JARDUERA FISIKOEN PROGRAMA

22-23ko 1. lauhilekoa							
JARDUERA	INSTALAKUNTZA	EGUNAK	ORDUTEGIA	IZENEMATEA		PLAZAK	
				UPV/EHU	kanpoko	MIN	MAX
Pilates Hastapena	Unib. Pabiloia	As-Az	18:15-19:15	30€	50€	12	18
Pilates	Unib. Pabiloia	As-Og	17:00-18:00	30€	50€	12	18
Yoga Hastapena	Unib. Pabiloia	As-Az	17:00-18:00	30€	50€	12	18
Yoga	Unib. Pabiloia	As-Og	18:15-19:15	30€	50€	12	18
GAH (Gluteoak,Abdominalak,Hankak)	Hegoalde GE	As-Az	17:00-18:00	30€	50€	12	18
Zumba	Hegoalde GE	As-Az	18:00-19:00	30€	50€	12	18
Entrenamendu Funtzionala- HIIT	Hegoalde GE	As-Og	17:00-18:00	30€	50€	12	18
Martxa Nordikoa Hastapena I	Unib. Pabiloiko sarrera	Asteazkena	17:00-18:30	30€	50€	6	10
Martxa Nordikoa Hastapena II	Unib. Pabiloiko sarrera	Osteguna	17:00-18:30	30€	50€	6	10
Martxa Nordikoa Aurreratua	Unib. Pabiloiko sarrera	Astearte	17:00-18:30	30€	50€	6	10
Boleibol Eskola	Kirol Fakultatea	As-Og	19:00-20:30	20€	40€	12	24
Euskal Pilota Jokamoldeak Eskola Neskak	Beti Jai Trinketea	Asteazkena	20:00-21:00	20€	40€	5	8
Errugbi Eskola	Lakua	Asteazkena	19:30-21:30	20€	40€	10	24
Tenis Entrenamendua	Mendizorrotza	Astelehena	15:30-17:30	0€	0€	4	6

2.-IZENA EMATEKO EPEAK

- **UPV/EHUko IKASLEAK, IIP, AZP BAKARRIK:** 2022eko Abuztuaren 29tik irailaren 25era arte.
- **2022ko irailaren 12tik 25era:** UPV/EHUtik kanpoko pertsonak, UPV/EHUko ikasleak, IIP, AZP.
- **Irailaren 26an:** Ikastaroen baietzapena.
- **Plaza libreak:** Irailaren 26tik aurrera, izenemateak bete arte.

3.-NOLA IZENA EMATEA

ON-LINE. Izen-emate ordenaren arabera esleipena.

Aurrez aurrekoa, kasu partikularrei erantzungo zaie, UPV/EHUko Arabako Campuseko Errektoreordetzaren eraikinean (Gasteizko Izarduy komandantea k. 2, 01006).

ON-LINE: FireFox edo Google Chrome nabigatzaileak erabiltzea komeni da.

UPV/EHUren EHUKirola Arabako web gunean <https://www.ehu.es/kirolak-araba> edo esteka honetan klikatu: <https://jarduera2.ehu.es/kirolak/zonaabo.php>. Identifikatzeko, UPV/EHUko LDAP izena eta pasahitza erabiliko dira.

Kirol Jarduerak Menua: BIZITZA AKTIBOA = **BIZITZA OSASUNGARRIA/Kirol Jarduerak**

Kirol Eskolak Menua: BIZITZA AKTIBOA = **BIZITZA OSASUNGARRIA/Kirol Eskolak**

Erabiltzaileak LDAPen erabiltzaile-izena eta pasahitza ezagutzen ez baditu, GAUR-en sartuta aurki ditzake (<http://gestion.ehu.es/gaur>). GAUR-en sartzeko zure erabiltzailea eta pasahitza ere ezagutzen ez badituzu, dagokion unibertsitateko idazkaritzan eman ahal izango dizute.

ORDAINKETA: izena ematerakoan.

UPV/EHUK jardueraren bat eteteko eskubidea gordetzen du, gutxieneko izen-emate faltagatik.

4.-DIRU ITZULKETAK

UPV/EHUri egotz dakizkiokeen arrazoiengatik jarduera egiten ez bada bakarrik itzuliko dira ordaindutako zenbatekoak.

Jarduera hasi ondoren, ez da itzuliko aurrez ordaindutako zenbatekoa.

5.-JARDUEREN HASIERA ETA IRAUPENA

22-23ko 1. lauhilekoa: 2022ko Urriaren 3tik Abenduaren 22ra

Kirol jarduera fisikoen programa UPV/EHUren eskola aldian garatuko da.

6.-JARDUERARIK ABEKO EGUNAK

- Urriaren 12a, Pilarreko Ama Birjina
- Azaroaren 1a, Santu Guztien Eguna
- Abenduaren 6-7-8a, Konstituzio Eguna eta Andre Maria Sortzez Garbiaren Eguna

7.-UPV/EHUKO IKASLEARENTZAKO HAUTAZKO KREDITUAK

Graduko planetarako, 3 kreditu baliozkotzen dira gehienez ikasturte bakoitzeko.

Kreditu kopurua asistentziaren araberakoa izango da. Hau da, kreditu 1 = 25 ordu; 0,5 kreditu = 13 ordu.

Posible da jarduera batean baino gehiagotan parte hartzea.

8.-DATU PERTSONALEN BABESA

Abenduaren 13ko Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoak 5. artikuluan jasotakoarekin bat etorrira, jakinarazten dizugu zure datuak UPV/EHU titularra den "EHUkirola Araba-Izen Emateak" izeneko fitxategian gordeko direla. Izan ere, horren helburua da "ikastaro eta jardueretarako izen ematea erraztea, estatistika helburuak...". Jakinarazten dizugu zure datuak ikusi, zuzendu, ezeztatu eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal dituzula idazki bat Arabako Campuseko Errektoreordetzara (Gasteizko Izardui Komandantea K., 2-01006) bidalita, zure nortasuna egiaztatzen duen agiriaren kopia erantsita.

9.-UPV/EHUKO OHARRAK

- Izena eman duten pertsonen jarduera bakoitza burutu ahal izateko beharrezkoa den kirol materiala eskuratuko zaie.
- Eusko Jaurlaritzak ezarritako indarreko osasun- araudia aplikatuko da.
- Ez du eskatuko partaidetza-oinarri hauetan ezartzen direnen ordainketa osagarririk.
- Instalazioak ezingo dira erabili oinarri hauetan ezarritakoak ez diren aldietan, berriazko baimena eman ezean. Baimen hori, hala badagokio, publiko egingo da.